

# Diskoak

IKER BARANDIARAN



*Bidean aurkitu zintudan.*  
Mikel Errazkin.  
Hirusta Records.  
Iraupena: 65'23".  
13,95 euro.

## Errazkinen kantutegiari kolore eta sentimendu biziak emanaz

MIKEL ERRAZKIN konposatzaile, musikari eta ekoizle hondarribiarra aurten hil zaigu. Mila saltsatan buru-belarri, negurako hainbat abesti idatzi eta beste hainbat musikarirekin grabatu nahi zituen. Zoritxarrez, ezin izan zuen egitasmoa gauzatu. Hala ere, Mikelen lagunek musikari horiengana jo, orain arteko Mikelen kantutegiko atek ireki eta guztien artean gai izan dira disko hunkigarri bezain eder hau kaleratzeko. Inter-

prete bakoitzak kantuak bere eremura eramateko askatasun osoa izan du, eta emaitzak pop, folk, jazz edota country koloreak hartu ditu. Gure herriko musikagintza dago diskoan, tamaina batean: Jabier Muguruza, Ruper Ordorika (argitaratu gabeko kantu batekin), Txomin eta Urbil Artola, Alaitz eta Maider, Aitor Furundarena, Olatz Prat, Joseba Irazoki, Alan Griffin, Javier Alvarez eta beste hainbat.

**“Casti” - Hirusta Recordseko arduraduna eta diskoaren argitaratzailea**

## «Mikelek asko borrokatu izan du: berarengatik, Hirusta diskoetxeagatik, bere musikagatik...»

**Mikellentzat omenaldi onena izan da berak egin nahi zuen lana osatzea?**

Hala uste dugu. Mikelek izenburua eta kolaboratzaile zerrenda utzi zitakigun eta halako batean proiektua berriz heltzea erabaki genuen. Denbora oso gutxi izan dugu, baina Mikelen hainbat lagunek koordinazioa egin dugu, eta musikariek erraztasun guztiak jarri dituzte. Horrez gain, Elkarrek eta Angel Katarainek laguntza handia eman digute. Helburua zen Durangoko Azokara heltzea eta hala izan da.

**Ruper Ordorikarena bestelako esku-hartzea izan da, ezta?**

Bai, Mikelen asmoa zen abestiak idatzi eta berak aukeratutako musikariek grabatzea, baina horiek egiteko denborarik izan ez zuenez, musikari horiei guztiei Mikelen kantutegia osatzen duten 60 bat abestietatik aukeratzeko esan genien. Ruperren kasuan, bera batu zitzaigunean abesti asko hartuta zeuden eta proposatu zigun jasota zeukan hitz bati musika jartzea. Oso garrantzitsua zen Ruper diskoan egotea Mikelek bera asko miresten zuelako. Oparia izan da.

**Kantu batzuk maitasunaren gainekoak dira, baina badira hainbat bakardadearen eta atsekabearen kontrako borroka ere azaltzen dutenak...**

Mikelek beti asko borrokatu izan du bizitzan: beragatik, Hirusta diskoetxeagatik, bere musikagatik... Baina

hitzek irakurketa asko izan ditzakete. **Disko honetan nesken ahotsak –oso onak, bide batez– protagonismo handia dute...**

Bai. Mikelek azken urteotan neska askorekin lan egin zuen. Beraiekin oso ondo moldatzen zen, eta beti zekien kantu bakoitzerako zer ahots nahi zuen. **Nola gogoratu duzue Mikel, kantu egile, musikari, ekoizle gisa?**

Sortzaile hutsa zen eta oso langilea. Beti zebilen

proiekturen bat buruan. Baina, horren guztiaren gainera, lan egiteko beste modu batean sinisten zuen: lehenik eta behin, edozein lan egin aurretik hizketan egin nahi izaten zuen, eta oso giro berezia lortzen zuen. ■

SONIA SAMANIEGO

